

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2009-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoaren eta Sozietate Publikoen fiskalizazio txosten derrigorrezkoa mamitu du, 2009ko ekitaldiaren gainekoa. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako bik baterako boto partikularra egin dute.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezkontasunaren atalean HKEEk iritzi orokorra plazaratu du Foru Aldundiaren jarduerari dagokionez eta bertan dio zuzentasunez bete duela indarreko arautegia, salbuespen izanik txostenean bertan jaso diren ez-betetzeak eta 7/1996 Foru Arauaren 26. artikuluan eta 7/1997 Foru Arauaren Xedapen Gehigarri 10.ean aurreikusitako zerga kenkari eta hobariei dagokienez Europako Batzordeak jarritako demandaren azken ebazpenaren gaineko zalantza.

Halaber, sarrera fiskalei dagokienez HKEEk adierazi du fiskalizazio txosten hau jaulki den datan Irungo Instrukzioko Epaitegiak ez duela ebatzi zerga sarrerak baliogabetzeko espedienteetan izandako irregulartasunei buruzko salaketa. Gainera, Dirubilketarako Erregelamenduak zerga zorrak geroratzeko eskabideak ebazteko ezarritako gehiengo epea ez bete izana barne hartu da; zerga zor horiek 26 milioi euro ingurukoak izan dira eta horrek ordainketa planik ez zehaztea eta dagozkion bermeak ere ez eskatzea ekarri du.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan, salbuespenak, besteak beste, honako hauek izan dira: bederatzi zerbitzu-kontratu publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez gauzatu dira, prozedura hori baliatzeko arrazoiak egiaztatu gabe daudela; 5 kasutan kontratuak zatikatu dira publizitate betekizunak saihestuta; bost obra kontraturen exekuzioan egin diren aldaketek esleitutako zenbatekoa % 32 eta % 53 bitartean gehitu dute eta horrek kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egiten du.

Diru-laguntzei dagokienez, HKEEK azpimarratu du Diputatuen Kontseiluak 7,5 milioi euroko diru-laguntza zuzenak eman dizkiela toki erakunde eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, dagokion publizitate eta lehia sustatzeko ezintasuna batere justifikatu gabe.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEK aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik garrantzi txikiko hainbat kontularitzako doiketa (Diruzaintza Geldikina 17,1 milioi euroan gehitu dutenak) eta ibilgetuko hainbat kontu ez xehakatu izana.

Txostenak, gainera, Erakunde Autonomia eta hiru Foru Sozietate Publikoak fiskalizatu ditu; HKEEK jaulki duen txostena aldekoa izan da, salbuespen jakin batzuekin; horien artean azpimarratzekoa da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ez argitaratu izana Bidegi, SAren bost kontraturen lizitazioa, 12,8 milioi eurokoa; eta sozietate berean obra kontratu batean esleipen zenbatekoaren % 52ko aldaketa bat onartu izana, zeinetan, bestalde, 2011ko ekainean onetsitako azken likidazioak % 22ko igoera osagarria eragin duen, eta hori ez du inongo kontratu aldaketak babesten.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Finantza-analisiaren atalean ondorioztatu da diru-sarrera arrunten beherakadak gastu arrunta aurreko ekitaldietan baino erritmo biziagoz igotzearekin batera, eragotzi egin duela emaitza arrunta behar hainbatekoa izatea kapitalezko eragiketen egikaritze garbia finantzatzeko; berebat, 2009ko ekitaldi itxieran erabilitako zorpetzeari buruzko informazioa eman da, non Aldundiari dagokionez 199,8 milioi eurokoa izan den eta 500 milioi eurokoa Bidegi, SAn; 2010eko ekitaldiari dagokion aurrekontuetan baimendutako zorpetzearen muga 509 milioi eurokoa izan da Aldundiarentzat, eta 813 milioi eurokoa Bidegi, SArentzat.